

## BEZEROEKIKO HARREMANA

Komunikabide bide nagusienak gure bezeroekin harremanetan jartzeko gure aplikazioa eta lokal solidarioa izango da. Alde batetik gure aplikazioaren bitartez, turistak Donostiko leku garrantzitsuenak bisitatzeko lagungarria izango da, hor bertan Donosti herriko taberna nagusienak proposatuko ditugu jendeak bisita dezan, aplikazioa erabiltzen duena gauza solidario baterako izango da. Beste aldetik, gure lokal solidarioa bide lagungarri bezela ere izango dute, gure lokala bisitatzeko gaia egongo da publiko guztientzat, hor bertan etxegabekoak joango dira janari bila edo leku baten bila. Etxegabekoei emandako janaria, aplikazioan parte hartuko duten tabernen janaria izango da jendeak dohaindutako janaria era aukeratako bat izango da. Aplikazioa deskargatzen dute jende guztia gauza solidario bati laguntzeko izango da.

Bezeroekin harremanetan jartzeko beste modu batzuk izango ditugu:

- Sare-sozialen laguntza: Gure aplikazioa erabiltzeagatik izango duen hashtag-a sare desberdinetan zabalduko dugu, gero eta indar handia hartu dezan eta ezaguna izan dezan. Hainbat youtuber-en laguntza izango dugu, gure enpresa aldarikatu dezaten.
- Zenbait folleto erabiliko ditugu gure aplikazioa eta lokalaren zerbitzua eskaintzeko, folleto hauek hiriko turismo guneetan eta informazioa guneetan banatuta egongo da.

Enpresa aurrera ermateko 4 langile izango ditugu eta zenbait kolaboratzaileak. 4 langileen artean enpresaren lan guztia banatuta egongo da, eta 4 langileak jarduera guztiak egingo dituzte. Bi langileen artean janaria jasotzen egongo dira, berriz beste biak lokala zaintzen, antolatzen eta etxegabekoekin egoten horrela aldi oro. Kolaboratzaileen laguntza izango dugu batzuetan ere.

Aplikazioan proposatutako tour-ean gure lokala azkeneko geltoki bezala jarriko dugu. Gure lokalarekin ateratako argazkia edozein sare-sozialera igo ondoren #Donostrip hashtag-rekin argazki hori inprimatu eta gure lokalean egongo den kortxo batean jarriko dugu gure bezeroetaz ez ahazteko.

Azkenik, turisten bidaia bukatu ondoren eta bidai bitartean gure enpresarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute gmail-en bidez. Haiei lokala eskainiko diegu bisitan joan dezan eta dirua dohaindu dezakete laguntza bezala.